



## LEHEN HEZKUNTZAKO 3. zikloa: IPUIN SARITUA

### MONOPOLY CITY. Iraia Armendariz Senosiain

Bazen behin Leire eta Elisa izeneko bi neska alai eta nahiko bihurriak zirenak. Bere anaiaren urtebetetzea zen eta monopoly city-a oparitu behar zioten gurasoek, baina inork ez zekien zer zen. Hori bai, bikiek lehenago ikusi zuten, izkutuan.

—Ikusi Leire, Imanolen oparia!!!

—Goazen irekitzera Elisa!!

Bi ahizpek monopolya hartu eta poltsatik atera zuten.

—Ze karta hain berri, txuri, polit...- esan zuen Elisak.

—Eta partidatxo bat jokatzek badugu??- Leireren erantzuna.

Horrela partida jokatzek hasi ziren eta jarraian amaren pausuak pasabidetik entzun zituzten. Zer egingo dugu?- biak batera, Leire tableroarekin izkutatzek saiatu zen eta bapatean, desagertu egin zen. Orduan Elisa, bakarrik zegoenez eta ama atetik sartzen ari zenez, gauza bera egin zuen. Biak tableroan sartu ziren.



Orduan amak, guztia lurretik zegoela ikustean, bildu eta Imanoli eman zion oparia. Orduan Unai eta Imanolek jolasa ireki zuten eta bizilagunak jolasteko deitu zituzten. Bi fitxa berri zeuden, 1.ak maitagari forma zeukan, Elisa zena, eta bestea iratxo txiki eta bihurri bat zen, eta hori, Leire zen. Enaitz traktorea zen; Aimar, berriz, margo potoa. Eta bi anaiak iratxoa eta matiagarria hartu zituzten, noski, fitxa berriak ziren eta.

Aimarren txanda pasa eta gero, Imanolen txanda zen, SUBASTA bat egitea tokatu zitzaion, diru asko irabazi zuen. Orain, partida hasia zegoela, Elisa eta Leire arriskuan zeuden, gertatzek zen guztia beraiei gertatuko



zitzaien. Txandak joan eta txandak etorri, Unai, Leire hobe ulertzeko, kartzelan erori zen. Han jende txar pila zegoen eta berdur asko pasatzen ari zen. Orduan, mutil handi bat gerturatu zitzaion, bere aita baino 10 aldiz indartsuagoa zen eta begi bat falta zitzaion.

Leire kartzelatik korrika ibili zen denbora luzez eta Unai, bere fitxa mugitzen ari zela ikustean, harrিতuta, hartu egin zuen. Bere arrebari bizia salbatu zion, justu hartu zuenean jende indartsu askoren tartean korrikatzen zebilen. Hoberena izan zen Unai hurrengo txandan bikoteak atera zituela, hau da, kartzelatik libre zegoen. Baina, partidari zehar ez zen hori gertatu zen gauza arriskutsu bakarra. Goazen Elisaren partida ikertzera, hori ere nahiko arriskutsua izan zen. Enaitzek bota zituen dadoak eta 10 bat atera zuen, Elisaren ondotik pasa zen eta Imanol fastidiatzeko, bere traktore handiarekin, Imanolen maitagarria bota zuen. Beraiek edozein fitxa berezi zela uste zuten baina benetako pertsona zen, baita egitazko traktorea ere. Imaginatu, benetako traktorea Elisarekin txokatu egin zela. Bestalde, Imanolek subastan irabazi zuen diru guztia galdu zuen: 20.000.000 euro galdu zituen. Orduan, Imanolek, pikoniko xamarra zena, tableroa hartu eta dena bota zuen. Leire eta Elisak zelako mina hartuko zuten!!!

—Leire!! Elisa!! -Oihukatu zuen amak. —Etorri merienda prestatzera!!

—Ez ama, Leire eta Elisa ez daude hemen, zurekin daude -esan zuen Unai.

—Ez, nirekin ez daude- amaren erantzuna.

—Leireeeeeeeeeeee!!! Elisaaaaaaaaa!!- Imanol oihukatzen.

Oihukatzen bota zituzten 10 minutu kaletik, eta logelako leku guztietan begiratu zuten.

Enaitz fixak begiratzen gelditu zen: —Ba, egia esanda, maitagarriak eta iratxoak Leire eta Elisaren antza daukate eta handia gainera, eta nire monopolyan ez daude horrelako fitxarik -esan zuen Enaitzek. Fitxa horiek Leire eta Elisa zirela konturatu ziren. Orain bai, problema handi bat zeukaten. Nola aterako zituzten handik? Amak fitxak hartu zituen eta haxe esan zien:

—Elisa, Leire, zuek zarete??

Eta ahots baxu-baxu bat entzun zen. Nola demontre atera behar zituzten handik? Aimarrek ideia bat izan zuen. Gabonetan oparitu zioten entzungailu bat erabiliz, bikiei ea nola sartu ziren galdetu zien. Entzungailua hobe entzuteko zen, detaie guztiak behar zituzten eta.

—Leire Elisa, nola sartu zineten hemen -galdetu zien Aimarrek.

Eta haiek gertatutakoa esplikatu zieten. Baina, nola egin ateratzeko?? Ba kontrakoa egiten. Salto handi batez, izkutatu beharrean, tablerotik atera behar ziren. 3, 2, 1 eta, biak batera, salto egin zuten. Alferrik izan zen, ez zuen funtzionatu. Orduan, Aimar konturatu zen tablerora sartu zirenean, momentu kritiko batean zeudela eta momentu hartan ez zekitela zer egin. Orduan,



EUSKARAZKO IPUINEN  
XX. HAUR LEHIAKETA.  
BERRIOZAR, 2016

traktorearekin jarraituz aterabiderik gabeko momentu batera iritsiz gero salto egin behar zuten. Orain bai planak funtzionatu zuen!!

Elisa eta Leire arriskutik salbo zeudenean, merendatu eta Monopolyan jolastu zuten. Handik egun batzuetara, Aimar eta Enaitz izkutuan txokolatea jaten ari ziren eta ama atetik sartu zen. Anaiak Elisa eta Leireren gauza bera egin zuten. Irtenbiderik gabeko momentu horretan monopolyan sartu behar zuten baina ez zuen funtzionatu. Horrek esan nahi zuen, Imanolen monopolya sorgindua zegoela...

Ala bazan edo ez bazan sar dadila monopolyko plazan.